

EDUKALBOAN

ELKARTASUNERAKO HEZKUNTZA. 2012. URTEA. 5. zk.

www.alboan.org

**Errefuxiatu eta
lekualdatutako pertsonak**



ALBOAN

Herrien arteko elkartzasunaren alde lan egiten duen Fundazioa da ALBOAN. Jesulagundiak sortu eta bultzatzen du.



ALBOAN

BILBO

Aita Lojendio, 2 - 2.
48008 - Bilbao
Telefonoa: 944 151 135
Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

IRUÑEA

Barañain etorbidea, 2
31011 Iruñea
Telefonoa: 948 231 302
Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

DONOSTIA

Ronda, 7 - 4. I
20001 - Donostia
Teléfono: 943 275 173
Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

GASTEIZ

Estenaga Apezpikua, 1
01002 - Gasteiz
Telefonoa: 945 202 676
Faxa: 945 202 676
alboanar@alboan.org

Zuzendaria
José Ignacio Eguizabal
Publikazio koordinatzailea
Zigor Uribe-etxebarria
Argazkiak
ALBOAN artxiboa
Diseinu eta maketazioa
Worköholics S.L.
Lege-gordailua: SS-290-2010

Birziklatutako paperean inprimatutako aldizkaria, %100 klororik gabea.

EDITORIALA

"Gurekin geratuko zara?"

Hitzik gabe utzi ninduten Kongoko emakume batek Ruandan esan zizkidan hitz horiek. 2004. urtea zen, eta Kongoko beste errefuxiatu-olde batek muga gurutzatu berria zuen, indarkeriatik ihesi. **Kizibako errefuxiatu-eremuan** geunden gu, Kibuye hiria inguratzen duten muinoetako batean. Ikusgarria da hango paisaia. **Kivu lakua** ia osorik ikusten da errefuxiatu-eremutik. Landare ugari dago, baina ez oihanekoa; izan ere, altitudeak (1.500 m-tik gora) leundu egiten du tropikoaren eragina. Turismo-leku bikaina izan zitekeen, baina bat-batean eraikitako espetxea da: **duela bi hamarkada hasitako gatazka hartatik ihesi datozenentzako errefuxiatu-eremua**.

Emakume harentzat, maitasun-adierazpena zengaldera, eta laguntza aurkitzeko modu bat. Bost metro karratuko etxe bat egiten ari zitzaion laguntzen NBEko Errefuxiatuentzako Agentzia. Muinoko aldapa piko hartan presaka egindako terraza haietako batean zegoen etxea, lokatzazko paretaz eta oihal irazgaitzezko estalkiz eraikia. **Oso litekeena gaur egun —zazpi urte geroago, alegia— emakume hark eremu hartan jarraitzea.**

Nire bizitzarentzat eta konpromisoarentzat zalantza gogorra izan ziren emakume haren hitzak, apaltasun-irakaspena. Era berean, emakume haren eta beste askoren alde lan egitera bultzatu ninduten, eta nire gaitasunak hutsaren parekoak direla gogoratu, **ALBOAN** erakundearen jarduten naizen arren.

Emakume haren begiradan ez zen zalantza-izpirik ageri: bazekien ezetz erantzungo niola, baina, hala eta guztiz ere, galdetu egin zidan. Emakume harekin da harrezkero nire leialtasuna, baita nire koherentziak aurreratzen duen guztia ere.

Ezin nintzela geratu erantzun nion, zain nuela familia, baina hurbil jarraituko genuela, **mundua hango egoeraz ahantz ez dadin eta han direnak etxera, bakean, itzul ahal daitezen**. Orain arte, ez dira bete asmo horiek. Ruandako gobernua Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari eremu hartan jarduten utzi dion bitartean, hantxe aritu da, **ALBOAN**en laguntzarekin. Baina bakea noiz itzuliko zain jarraitzen dute errefuxiatuek. Itxaropena aurkitu beharra dago, etsi gabe aurrera egiteko.

Utz iezaiezue galdetzen. Zuen ikasleek galdera erabakigarri hori senti dezatela, aurrez aurre egingo baliote bezala. Ez dituzte berdin ikusiko gauzak aurrerantzean.

Eskola kanpin-denda batean

"Eskola kanpin-denda batean" kanpainaren bidez, mundu osoan halabeharrez erbestetarik eta errefuxiatu bizi diren milioika gizon-emakumeen drama latza plazaratu nahi du **ALBOAN**ek. Horregatik gonbidatzen zaitugu "**Eskola kanpin-denda batean**" hezkuntza-proposamena ezagutzera. Errefuxiatuekiko eta haien hezkuntza-eskubidearekiko sentsibilizazioa eta konpromiso aktiboa sustatu nahi duten irakasleei eta aisialdiko arduradunei zuzendua da kanpaina.

Ikasgelarako edo taldeetarako dossier didaktiko bat eta giroitze-materiala (posterrak, pegatinak, arkatzak...) ditu hezkuntza-proposamenak. Parte hartu nahi baduzu, **ALBOAN**ek proiektua zure ikastetxean edo taldean abian jartzeko laguntza eta baliabideak emango dizkizu.

+ Informazio gehiago, www.alboan.org-n edo **ALBOAN**en egoitzetan.



Kalitateko haur-hezkuntzaren alde



"Eskubideak, hasieratik. Kalitateko haur-hezkuntzaren alde" du eslogana gure Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak, eta, aurtan ere, hezkuntza-eskubidearen alde jardutera dei egiten digu. Oraingo honetan, 0-6 urteko haurtxoen haurren heziketan jarri dugu arreta, oso gutxi egin baita aurrera alor horretan azkenaldian.

Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astea (**apirilaren 23tik 29ra, aurtan**) izango dira **kanpainaren ekitaldi eta mobilizazio** nagusiak. Zure taldearekin edo ikastetxearekin parte hartu nahi baduzu, eskuragarri dituzu jada unitate didaktikoak kanpainako jarduei ekiteko.


+ Informazio gehiago, www.cme-espana.org-n edo **ALBOAN**en egoitzetan.

Afrikandugu

2009an sortu zuten Afrikandugu ekimena **ALBOAN**ek, **Baketik-ek**, **Tau Fundazioak**, **Bizkaiko Caritasek**, **Laku Handietako frantzisko-tarrek** eta **Kongoko Errepublika Demokratikoko Kisantuko** elizbarrutiak. Afrikari laguntzeko beste bide batzuk bilatzea du helburu ekimenak, lankidetzaren ohiko harremanetatik landa.

Horretarako, **lankidetzaren senidetzeak** proposatzen ditu, **elkarrekikotasuna, alde bakoitzaren indarren garapena, entzute aktiboa, zuzeneko harremana** eta Afrikako giza ondarearen sustapena ardatz direla. **Begoñako Gure Ama (Indautxuko jesuitak)** ikastetxea ari da "**senidetze pilotu**" baten lehen urratsak ematen, hiru alor hauetan: **hezkuntza, ekoizpena eta emakumeen antolakuntza**.

+ Informazio gehiago, www.afrikandugu.org-n edo **ALBOAN**en egoitzetan.



Albiste hauei eta **ALBOAN**eko beste albiste batzuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, sartu gure web-orrian (www.alboan.org), eta eman izena gure albiste-aldizkarian.

Ihesi, bizitza salbatzearen

Hamabost milioi errefuxiatu baino gehiago daude munduan, eta “herrialdearen barruan erbesteratuak” deritzenak (beste 28 bat milioi lagun) gehitu behar zaizkie. Teknikoki, ez dira errefuxiatutzat jotzen herrialde barruan lekualdatuak, ez baitute nazioarteko inongo muga zeharkatu jazarpenetik ihes egiteko. Alabaina, errefuxiatuena bezain larria da horien egoera ere, eta haien antzeko bizipenak pairatzen dituzte: beldurra jazarleei, beldurra etorkizunari, eta etxera itzuliko diren ez jakiteak dakarkien ziurgabetasuna. Hortaz, hainbat arrazoi direla medio, 43 milioi lagun bizi dira beren sorlekue-tatik urrun, beste nonbait bizi berri bat hasteko ekinean.

Senideen eta beraren bizitza salbatzearen etxetik, herrialdetik ihes egin behar izan duenari deitzen zaio errefuxiatu. Arriskuan sentitu ohi da errefuxiatua: ezin du bermatu ez sendiaren ez bere buruaren segurtasuna etxean geratzen ba dira. Bere etniagatik, nazionalitateagatik, erlijioagatik, iritzi politikoengatik edo, besterik gabe, talde sozial jakin bateko kide izateagatik izugarrikeriaren bat jasateko beldur da errefuxiatua. Horregatik alde egiten du bere herritik, hori baita bizirik irauteko berme bakarra. Horrenbestez, herri osoak abiatzen dira gatazka armatuetatik edo muturreko pobreziatik ihesi, beren burua arriskuan ikusten baitute.


Baina ihesaldiak (luzea eta arriskutsua, gehienetan) ez ditu erabat uxatzen jende horren arazoak. **Bizileku berrira iristen direnean, kanpamentu edo mugatutako esparruetan biltzen dituzte, epe jakinik gabe.** Inoiz, hainbat hamarkadaz luzatu izan da egonaldia. Segurtasunik eta egonkortasunik gabeko bizitza korapilatsua aurkitzen dute leku horietan, lantzeko lurrik gabe, osasun-, elikatzeko-, etxebizitza-, hezkuntza-eskubiderik gabe. Normalean, itxarotea izaten dute egunero eginkizun bakarra, zerbait aldatzen den zain egotea.



Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua

“Errefuxiatua” edo “erbesteratua” hitzak entzuten ditugunean, ez da erraza izaten etiketatik harago begiratzea eta jende horren benetako bizipenez ohartzea. Horregatik, harri-garria da haien bizitzetan, zailtasunak gorabehera, hainbeste itxaropen ikustea. Bizitzak, oso gogorra izan arren, aurrera jarraitzen du. **Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak (JSR,** ingelesez) hogeita hamar bat urte daramatza errefuxiatuei eta erbesteratuei laguntzen bizitza berri ekiteko ahaleginean. **Pedro Arrupek** (jesuita, Jesusen Lagundiko burua garai hartan) sortu zuen JRS, **1980an**. Gaur egun, berrogeita hamar bat herrialdetan dihardu JRSk. Urteak daramatza **ALBOANek** JRSren proiektuei laguntzen zenbait herrialdetan: Ruanda, Burundi, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Txad, Venezuela, Kolonbia...

JRSk lehentasuna ematen die larrien dauden eta beste erakunde batzuen laguntzarik jasotzen ez duten erbesteratuei. Kezkagarria da, alde horretatik, neska-mutikoen



egoera. Izan ere, haurrak dira (emakumeekin batera) errefuxiatu eta erbesteratu gehienak. Deserrira jo behar izan duten gainerakoen estutasunak ez ezik, beste bat ere pairatzen dute **neska-mutiko** horiek: **ezin dute ikasten jarraitu, eta arriskuan dute geroa.** Haur horiei hezkuntza eskaintzeko, behin-behineko eskolak eraiki ohi dira kanpamentuetan, eta ahaleginak egiten dira maisu-maistrak eta eskolarako behar den materiala eskuratzeko. Ohartuko zaretenez, ez da lantegi erraza izaten, eta oso kalitate eskaseko hezkuntza eskaini ohi da. Irakasle gehienek ez dute behar adinako trebakuntzarik izaten, eta ikasketa-material gutxi izaten da.

Emakume errefuxiatuen egoera ere bereziki larria izan ohi da. Etxearen, gobernuaren eta, askotan, familia-egitura tradizionalaren babesik gabe, egoera oso larrietan izaten dira, maiz, emakumeak. Bide luzea egin behar izaten dute erbestera; erakunde ofizialen arduragabekeria edo jazarpena pairatzen dute, baita —askotan— sexu-jazarpena ere, baita ustez leku segururen batera iritsi eta gero ere. **Mehatxu horiei guztiei eta maiz berekin dakarten bazterketa sozialari aurre egin behar izaten diote emakumeek eta, gainera, beren senitartekoen segurtasun fisikoaz, ongizateaz eta biziraupenaz arduratu.**

Errefuxiatu eta lekualdatutako pertsonen gaia jorratzeko

6-12 urte Bebé Ratouren istorioa

Denbora: ordubete.
Hemendik atera dugu jarduera hau: "Eskola kanpin-denda batean" kanpainako proposamen didaktikotik. **ALBOAN**.

Eseri, biribila osatuz, eta irakurri istorioa neska-mutikoei.

Azaldu, munduko mapa batean, **non dagoen Txad**. Bebék bere istorioan azaltzen dituen **sentimenduak gogoratu**, eta horrela noiz sentitu garen adierazi. **Galdetu ikasleei nola sentituko liratekeen Bebéri gertatu zaiona gertatuko balitz**. Azaldu zer den errefuxiatu-eremu bat, nola bizi den han jendea... **Marratzu dezatela nola irudikatzen duten Bebék kontatu diena**.

12-16 urte Erbesterratuak xakean

Denbora: 30-60 minutu.
Hemendik atera dugu jarduera hau: "Bake-jokoak. Bake-kultura irakasteko erreminta-kutxa". Escola de Cultura de Pau (Bakearen Kulturarako eskola).

Xake-taula bat eta hiru jokalaria-talde behar ditugu: armada, Shan nekazariak eta Karen nekazariak. Taularen kanpoaldeko laukiak ondoko herrialdeak izango dira. Bina laukiko hiru talde (errefuxiatu-eremuak) markatu.


Jolasari ekiteko, **nahi duen laukietan jarri behar ditu armadak bere hiru piezak**; ondoren, **Karen eta Shan nekazari-taldeak (seina pieza)**. Bi nekazari-taldeen arteko fitxen artean **hiru gerrillarik ezkutatu** behar dute.

Hamabost txanda jokatu behar dira: lehenbizi, soldadu batek; gero, nekazari-talde bakoitzak. **Diagonaletik mugitu behar dute soldaduak**, eta lauki bat edo aurreratu txandako, baina ezin dute mugarik zeharkatu. **Helburua**: ezkutatuta dauden hiru gerrillariak akabatzea, haien laukira jauzi eginez. **Nekazariak**, berriz, **lauki bat mugi daitezke**, bertikalean zein horizontalean. Helburua: armadari ihes egitea. Muga zeharkatu dezakete, eta errefuxiatu bihurtu, baina 4, 7 eta 11 txandetan, irten diren laukietatik itzuli behar dute (herrialdetik irtetea eta sartzea ez da joko-txandatzat hartzen). **Soldaduak hiltzeko, haien gainean jarri behar dute nekazari gerrillariak**.

Kaixo! Bebé Ratou naiz. Zazpi urte ditut, eta Koukoun (Txadeko errepublikan) jaioa naiz. Sorterria utzi egin behar izan genuen. Egun batean, aita korrika etorri zen, tiro-hotsak entzuten ziren urratian. Amak poltsa handi bat hartu eta janari eta arropa pixka bat sartu zuen han. Oso triste zegoen. Ezin izan genuen ia ezer eraman. Ni izututa nengoen, ez bainekien zer gertatzen zen. Luze ibili behar izan genuen, eta ezkutatu. Ni oso nekatuta nengoen, baina amari lagundu behar nion etxeko txikiekin. Orain, errefuxiatu-eremu batean bizi gara. Ez dugu urrik, eta egunero ur bila joan behar dut, garbitzeko nahiz janaria prestatzeko behar baitugu. Argirik ere ez dugu, eta, hortaz, iluntzen duenean, etxean egon behar dugu, eta goiz oheratzen gara. Pozik nago, eskolara joateko eta lagunekin jolasteko aukera dudalako. Egunen batean etxera itzuli nahi nuke.



Ilustración: Ekilikua.



= Armada



= Karen nekazariak



= Shan nekazariak

Hausnarketa:

Nola geratu da herrialdea joko amaitzean?

Zenbat hildako izan dira alde bakoitzean? Konparatu benetako zifrekin (zibilak izaten dira biktimetatik % 90).

Lortu al dute beren helburua armadako soldaduak?

Zure ustez, zeinek irabazi du?

Zer salbazio-bide dute nekazariak?

Zure ustez, berdinak ziren joko-arauak pertsonaia guztientzat? Zergatik?

Zure ustez, gatazka armatuetako benetako egoera islatzen du horrek?

Bilatu antzeko egoeraren bat pairatzen ari diren herrialdeak.

Zer gertatzen da herrialde horietan?

Zergatik egiten die eraso armadak herritar zibilei?

Zer jarrera hartzen dute gerrillariak herritar zibilekiko?

Zer aukera dute herritar zibilek gatazkatik kanpo geratzeko?

16tik aurrera Roshaniren istorioa

Denbora: ordubete.
Hemendik atera dugu jarduera hau: **ALBOAN**en "Errefuxiatuak eta erbesterratuak. Eskubideak dituzten pertsonak" erakusketako gida didaktikotik.

1.- Irakurri Roshaniren istorioa:

2.- Taldeka lan egin:

Handitu egin da zuen herrialdera atzeritik iristen den emakumeen eta neska-mutikoen kopurua, eta bi talde ahul horiek babesteko ardura dagokizue zuei.

Zein dira aurkituko dituzuen arazo nagusiak?

Zer neurri hartu beharko zenituzkete talde horiek babesteko?

Taldeari azaldu behar diote **zerk eragin dien zirrara handiena istorio horretatik**. Proposatutako ikasleei ikerketa bat egiteko, **egunkarietan, gerrak edo gatazka armatuak dituzten inguruei buruz**, eta eztabaidatu gerraren zergatien eta herritar zibilen egoerari buruz (emakumeenari buruz, batez ere), **errefuxiatuak edo erbesterratuak eragin duten gatazkek...**



Heziketa-material gehiago aurkitu dezakezu **www.hezkuntza.alboan.org** web-orrian edo gure egoitzaren batekin harremanetan jarrita. **(2. or. IKUSI)**

Irakasle zen Roshani, Asiako hegoaldeko herri batean. Militarrek bahitu ondoren, herrialdetik alde egitea erabaki zuen. Alemanian bizi zen anaia bisitatzeko bidaia-txartel bat erosi zuen. Kievera (Ukraina) joan zen, hegazkinaz, eta han beste hegazkin bat hartu behar zuen. Hara iristean, bidaia-txartelak kendu zizkioten hiru ustezko "lagunek", eta haien ardurapean zegoela adierazi zioten. Prostituziora behartutako hainbat herrialdeko beste bost emakumerekin giltzapetu zuten, apartamentu batean.

Handik lau hilabetera, kanpoi batean zeramaten Roshani, Sri Lankako bi emakumerekin batera. Ez zekien nora zeramaten. Hainbat egunez bidaiatu zuten (gauez, beti) eta, halako batean, Berlingo zeudela esan zien gidariak, eta han utzi zituzten, abandonatuta. Poliziak espetxera eraman zituzten, Alemanian legez kanpo omen zeuden eta Roshanik babes-eskaria aurkeztu zuen, bere istorioa frogatzeko modurik ez zuen arren, eta, abokatu baten laguntzarekin, aske utzi eta babes-eskatzailentzako egoitza batean ostatatu zuten.



Material guztiak
ALBOAN-en
Baliabide Zentroan
aurkitu daitezke:

centroderecursos.alboan.org/eu
edo gure egoitzaren batekin
harremanetan jarrita. (2. or. IKUSI)



Errefuxiatu eta leku-aldatutako pertsonen buruzko baliabideak



Koadernoak:

"Asiloaren figurara eta errefuxiatuen egoerara hurbiltzeko proposamena". Raquel Celis. CEAR, 2007.



Bideoak:

"Pertsona errefuxiatuen begitarreak eta oinatzak". Román Rey. ALBOAN, Elixir Films, 2007.



Liburua:

"Palestina, zure mina". Begoña Bilbao. Elkar, 2004.



Proposamen didaktikoa:

"Eskola kanpin-denda batean". ALBOAN, 2010.

ELKARRIZKETA



Ihesaldi baten istorioak: erbestearen aurpegiak

Somorrostroko (Bizkaia) BHIPEko batxilergoko lehen urteko ikasle-talde batek "Ihesaldi baten istorioak: erbestearen aurpegiak" izeneko bloga (comunidadrefugiada.blogspot.com) sortu du. Errefuxiatuen eta erbestearatuen egoerari buruzkoa da bloga. ALBOANen "Eskola kanpin-denda batean" kanpainan dihardu talde horrek, beste zenbaitekin batera.

Nola sortu zen errefuxiatuei eta erbestearatuei buruzko blog bat egiteko ideia?

Bultzapen elkarteak gure ikastetxean antolatzen duen **Iparra-Hegoa Astean** jakin genuen egoera horren berri. Irakasle batek bultzatuta, **konprometitzea eta Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak antolatutako lehiaketa batean parte hartzea erabaki genuen**. Saharako komunitate erbestearatu baten istorioa irratiaio batean kontatzea erabaki genuen. **Lehiaketatik landa, Palestinari, Txadi, Kolonbiari...** buruzko lekukotasunekin jarraitu genuen. Ondoren, leku bakar batean bildu nahi izan genuen gure lan guztia (dokumentu grafikoak, irratiaioak...) eta informazio gehiago biltzea. **Horretarako, blog bat baino ezer hoberik ez dago!**

Egoera horren berri emateko beste jardueraren batean ari zarete?

Irratsaioekin jarraitzen dugu eta, horrez gain, **sentsibilizazio-hitzaldiak ematen dugu ikastetxean, pegatinak jartzen ditugu blogaren berri zabaltzeko, ikastetxeko webgunearen bidez informazioa hedatzen dugu...** Orain, berri, **aldizkari bat sortzekotan gabiltza**.

Errefuxiatuen eta erbestearatuen gaia jorratzean, zer iruditu zaizue deigarrien?

Hiru gauza, batez ere: **egiazki gertatzen denarekin alderatuta, hedabideek ematen diguten irudi distorsionatua; interes ekonomiko hutsagatik zenbateko oinazea eragiteko gauza garen, eta zein gutxi dakien jendeak (eta zein gutxi jakin nahi duen)**. Gure adineko jende gehienak haxe bakarrik du buruan: **zer egin behar duen asteburuan**.

Ezagutu al duzue, aurrez aurre, errefuxiatu edo erbestearatuen bat?

Bai. Talde honi esker, aukera izan dugu hauekin lan egiteko: **Saharako errefuxiatu-kanpamentuetan jaiotako bi ikaskiderekin, Palestinan boluntario diharduen batekin, Txaden errefuxiatuentzat hezkuntza-proiektu bateko zuzendari den batekin eta Kolonbiako rap-kantari feminista batekin**. Ia inork ere ikusten ez duen mundu bat jarri digu begien aurrean ikaskuntza horrek.